

2021EKO IRAILAREN 21EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zortziak direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO EKAINAREN 22KO ETA UZTAILAREN 20KO AKTAK).
- 2.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.
- 3.- XABIER AZURMENDI BEKAREN DEIALDIA BIDERATZEKO OINARRIEN ONARPENA.
4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO EKAINAREN 22KO ETA UZTAILAREN 20KO AKTAK).

Alkateak, 2021eko ekainaren 22ko eta uztailaren 20ko aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira

adierazitako aktak.

2.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa bideratzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

- 1.- Lizitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2018-09-27
- 2.- Eskaintzen aurkezpena: 2018-10-15 arte, 15.00 orduak.
- 3.- "A" kartazalaren irekiera, "kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta balio judizio bidez balioztatu daitezkeen irizpideak": 2018-10-16 11:45 orduetan.
- 4.- "B" kartazalaren irekiera "diru-proposamena eta automatikoki balioesteko irizpideak": 2018-10-16 13:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 16an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonsori 1234H NA (azken lau zenbakiak) esleitzea.

Zegozkion agiriak aurkeztu ondoren, Udalbatzarrak, 20219ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonso jaunari esleitzea erabaki zuen, hurrengo era honetan:

Prezioa: 1.350,00 euro gehi BEZ hilabeteko.
Egite epea: Bi (2) urte, luzagarria gehienez sei (6) urte egin arte.
Bermearen zenbatekoa: 2.500,00 euro.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak.

Zentzu horretan, eta hasierako esleipenetik bi urte igaro direla kontuan hartuz, kontratu horren urtebeteko luzapena formalki onartzea dagokio.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa (atzera indarrarekin) urtebetez luzatzea onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Eduardo Cuesta Alonso jaunari jakinaraztea.

3.- XABIER AZURMENDI BEKAREN DEIALDIA BIDERATZEKO OINARRIEN ONARPENA.

Alkateak, Xabier Azurmendi bekaren deialdiaren oinarriak prestatu direla azaltzen du, "ZEGAMAKO MUSIKARI ETA MUSIKA ADIERAZPEN EZBERDINAK" aztertuko dituen. Nolanahi ere, zenbait atal egokitzeaz daudela azalduz, gaia mahai gainean uztea proposatzen da.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, bilkurakideak, aho batez, gaia mahai gainean uztea adosten dute.

4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 06/0621 erabakia, ekainaren 24koa, 13 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina 2); guztira 57.878,62 euro onartuz.
- 07/0621 erabakia, ekainaren 24koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 01/0721 erabakia, uztailaren 6koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 02/0721 erabakia, uztailaren 6koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 03/0721 erabakia, uztailaren 8koa, Kultur Etxerako proiektorea Goisystem S.L. enpresari erostea erabakiz (435,60 euro BEZ barne).
- 04/0721 erabakia, uztailaren 8koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua betetzeko deialdia hutsik geratu dela jakinaraziz.
- 05/0721 erabakia, uztailaren 9koa, erorketagarikaurkeztutako ondare-erantzukizuneko eskabidea onartuz (1.590,50 euroko diru ordainia).
- 06/0721 erabakia, uztailaren 12koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 07/0721 erabakia, uztailaren 12koa, San Bartolome Kooperatiban artxibo bat egiteko baimena emanaz.
- 08/0721 erabakia, uztailaren 12koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa (gazta saltzeko makina Aitamarren Zaharra 4).
- 09/0721 erabakia, uztailaren 14koa, 3 zenbakidun kreditu aldaketaren espedientea behin-betikoz onartuz.
- 010/0721 erabakia, uztailaren 19koa, 14 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila); guztira 72.959,83 euro onartuz.
- 011/0721 erabakia, uztailaren 23koa, ezkontzarako ahalmena ordezkatzuz.
- 012/0721 erabakia, uztailaren 26koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa jakinaraziz (Ned Suministro GLP S.A.U., 2.018,38 euro).

- 013/0721 erabakia, uztailaren 26koa, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa jakinaraziz (Orange Espagne S.A.U., 149,09 euro).
- 014/0721 erabakia, uztailaren 28koa, 15 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila); guztira 104.148,58 euro onartuz.
- 01/0821 erabakia, abuztuaren 4koa, hiri izaerako lurren balio gehikuntzaren zergaren kitapenen zerrenda onartuz.
- 02/0821 erabakia, abuztuaren 6koa, 16 zenbakidun fakturen erlazioa (uztaila); guztira 34.170,17 euro onartuz.
- 03/0821 erabakia, abuztuaren 12koa, EVEk Eusko Jaurjaritzan ezarritako abala ezeztatzeko baimena emanez.
- 04/0821 erabakia, abuztuaren 31koa, 17 zenbakidun fakturen erlazioa (abuztua2); guztira 26.115,61 euro onartuz.
- 05/0821 erabakia, abuztuaren 31koa, biztanleen erroldan ofiziozko baja bideratzeari buruzkoa.
- 01/0921 erabakia, irailaren 6koa, egurra ateratzeko baimena bideratuz eta fidantza ezarriz.
- 02/0921 erabakia, irailaren 9koa, 19 zenbakidun fakturen erlazioa (abuztua2); guztira 39.484,33 euro onartuz.
- 03/0921 erabakia, irailaren 13koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 04/0921 erabakia, irailaren 14koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 05/0921 erabakia, irailaren 14koa, transferentzia bidezko 5 zenbakidun kreditu aldaketa espedienteari hasiera emanez.
- 06/0921 erabakia, irailaren 15koa, egurra ateratzeko baimena bideratuz eta fidantza ezarriz.
- 07/0921 erabakia, irailaren 16koa, Kasino Elkarteari pipar eguna antolatzeko baimena emanez.
- 08/0921 erabakia, irailaren 20koa, 5 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartuz.
- 09/0921 erabakia, irailaren 20koa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), ogasun bilkuran hitz egindakoaren arabera, festatan egiten diren zenbait ekintza berrantolatzeke aukera dagoen galdetzen du, zenbait asteburutan puzgarriak, bertsolariak, etab., antolatuz. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak San Martin jaiekin kointziditu gabe, beste egun batean (ostirala) adibidez, kontzerturen bat egin daitekeela adierazten du. Alkateak, festak ez zirela egingo elkarteekin adostu zuten bileran agindu bezela ekintza ezberdinak burutuko direla erantzuten du. Dauden aukerak aztertu eta plangintza bat burutuko dela ere adierazten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), aldi askotan azaldu duela aipatuz, fibra optikoa herrigune guztian zabaltzeko gaia nola dagoen galdetzen du. Alkateak fibra zabaltzeko dauden zailtasunak aipatzen ditu: kontaktu bat ez du eta hedapenari buruzko informazioa lortzea oso zaila dela adierazten du. Udalak bere kontura fibra zabaltzeko aukera aztertutako duela ere adierazten du. Alorreko Espainiako ministeritzaren esku dagoen gai bat izanik, baimenik ez dela lortuko adierazi diotela Foru Aldundian ere. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzan eta baita Gipuzkoako Foru Aldundian ere Zegamako zein etxetan fibrarik ez dagoen jakitun dira duela urtebetez gutxienez. Arizti Zaharreko kasua espreski aipatzen du, eta herri guneko egoera azaltzen da. Otzaurteko auzoan zabalkuntza nola eman den azaltzen du. Bestalde, Izaskun Igoa Arizkorreta zinegotziak (Zegama Lantzen), bertako bizilagun batek adierazi dionaren arabera, igerilekuaren eremuko etxebizitzatan Movistarrek fibra jartzen ez duela eta Guuk enpresak jartzeko aukera eman diela. Alkateak, eta Izaskun Igoak berak, hori horrela ez dela uste dutela azaltzen dute, baina ikusiko dela. Herrigunean leku batzuetan bai eta beste batzuetan ez jartzearen arrazoiak eta irizpideak ez dutela ulertzen azaltzen dute zinegotziak.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), azkenaldian zenbait herritan ikusten ari dela zenbait udal eraikinetan eguzki plakak jartzen ari direla, energia hori aprobetxatuz eta salduz ere. Hori, udal eraikinetan bideratu eta etekinak udal energia-gastuak murrizteko aukera egon daitekeen galdetzen du. Alkateak, Zegaman dauden eguzki plaken instalazioa nola bideratu zen azaltzen du, proiektuaren helburuak azalduz. Alkateak azaltzen du, bestelako modu batean inbertsio horiek bideratzeko aukera aztertu egin beharko dela. Etxe batzuetan ere, eguzki plakak jartzen hasi direla azaltzen du Alkateak.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), San Martinetarako eta Cavafestarako zein aurreikuspen galdetzen du. Alkateak adierazten du, Cavafesta egiterik badago, nola egin aztertu beharko dela. Zentzu horretan, Cavafestaren antolaketak, San Martin festen antolaketa baino gehiago kezkatzen diola adierazten du. Feriak eta ekitaldiak beste herri batzuetan antolatzen ari direla azaltzen da. San Martinetan frontoian zer antolatzeke aukera dagoen eztabaidatzen dute bilkurakideak, eta Cavafesta antolatuz gero, ostalaritzan betebeharrekoak diren neurri beretsuak errespetatu beharko direla azaltzen da. Labik eta agintariak finkatzen dituzten indarreko azken neurriak ere itxaron beharko direla azaltzen da, gaia aztertuko dela azalduz. Azkenik, inguruko herrietan antolatutako festatan

kanpoko jendea festa egiteko asmoz joanda sortutako arazoei buruz hitz egiten dute bilkurakideak.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zortziak eta berrogeita bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasotzeko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021ekok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2021.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO